

Goi Eskola Politeknikoa

Albisteak

Jon Garcia bere doktore-tesia aurkeztu du

2011/07/15

Gaur, uztailak 15, goizeko 10etan, Jon Garcia Barruetabeña doktoregaiak bere tesia aurkeztu du **Mondragon Unibertsitateko** Pedro Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusiko Areto nagusian. Bere tesiaren titulua hau da: 'Dynamic analysis of structural systems damped by means of single lap viscoelastic adhesive joints.'

Bere tesiaren zuzendariak Jonan Fernando Cortés eta Jose Manuel Abete izan dira.

Doktore hauek osatu dute epaimahaia:

- Jordi Viñolas Prat (TECNUN Nafarroako Unibertsitatea)
- María Jesus Lamela (Oviedoko Unibertsitatea)
- Felix Martinez Noguera (IKERLAN)
- Lucas Filipe Martins da Silva (Faculty of Engineering of the University of Porto (FEUP))
- M^a Jesús Elejabarrieta Olabarri (Mondragon Unibertsitatea)

Tesi honen asmoa da juntura itsaskor biskoelastikoak dituzten sistema estrukturalen erantzun dinamikoa ikertzea, Horietan, material itsaskorraren portaera biskoelastikoa moteltze ez-biskosoko modeloaren bitartez adierazten da. Lortutako ezagutza igogailuko kabina baten konfort bistroakustikoa hobetzeko erabiltzen da.



Jon Garcia epaimahaikoekin
aurkitzen da